



**BJP Aiaraldea 2022-2024 - Trakzio Proiektua A2 Dibertsifikazio Ekonomikoa: Nekazaritzako Elikagaien Sektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

BJP Aiaraldea 2022-2024 - Trakzio Proiektua A2 Dibertsifikazio Ekonomikoa: Nekazaritzako Elikagaien Sektorea

**I LEHIAKETAREN OINARRIAK:  
LEHEN SEKTOREARI ETA NEKAZARITZAKO  
ELIKAGAIEN INDUSTRIA TXIKIARI ZUZENDUTAKO  
PROIEKTU BERRITZAILEAK**



**BJPAiaraldea 2022-2024 - TrakzioProiektua A2 DibertsifikazioEkonomikoa: NekazaritzakoElikagaienSektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

## **AURKIBIDEA**

- 1- DEIALDIAREN TESTUINGURUA ETA HELBURUA**
- 2- GAIA**
- 3- ONURADUNAK ETA AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN HAUTAGARRITASUN-BALDINTZAK**
- 4- BALORAZIO-IRIZPIDEAK ETA SARIAREN INTENTSITATEA NAHIZ ZENBATEKOA**
- 5- EBALUAZIO-BATZORDEA**
- 6- IZEN-EMATEA ETA EPEAK**
- 7- LEHIAKETAREN EBAZPENA ETA ERREKURTSOEN ARAUBIDEA**
- 8- KONTRATU ERATORRIA**
- 9- BATERAEZINTASUNAK**
- 10- BESTELAKOAK**
- 11- DATU PERTSONALEN BABESA**



**BJPAiaraldea 2022-2024 - TrakzioProiektua A2 DibertsifikazioEkonomikoa: NekazaritzakoElikagaienSektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

## 1.- DEIALDIAREN TESTUINGURUA ETA HELBURUA

HAZI FUNDAZIOAk berrikuntza irekiko prozesu bat jarri du abian, lehen sektorearen eta nekazaritzako elikagaien industria txikiaren eremuko proiektuen lehiaketa baten bitartez; lehiaketaren helburua da Aiaraldea eskualdeko nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna sustatzea. Ekimenaren bitartez, eskualdean hazkuntza ekonomikoa eta elikagaien ekoizpen, eraldaketa eta merkaturatzearen inguruan enplegua sortzea sustatu nahi da. Ekimena Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du, Aiaraldeko BJPren (Berehalako Jarduera Plana) esparruan, “A2 Dibertsifikazio Ekonomikoa: Nekazaritzako Elikagaien Sektorea” trakzio-proiektuaren barruan. Proiektuak ezartzen du, besteak beste, nahiz eta Aiaraldearen ezaugarrietako bat ehun fabrikatua izan, bereziki Arabako Audio eta Amurrio udalerrietan eta Bizkaiko lurraldeko udalerrri batzuetan, eskualdeak badaukala, halaber, populazio gutxiago duen eta lurralde zabalean sakabanatuago dagoen populazioa duen landa-azalera zabala, eta haren egitura ekonomikoan lehen sektoreak ekarpen handia egiten duela. Aurrekari horiek kontuan hartuta, balio handiagoko eta denboran jasangarriak diren jardueretan oinarritzen den hazkuntza ekonomikoaren eredu bati bide emateko, planteatzen den lehiaketaren helburuetako bat da Aiaraldeko lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria txikia digitalizazioak eta balio-katean teknologia eta berrikuntza sartzeak bultzatutako sektore bilakatzea. Era berean, ekimenaren helburua da inguruneak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea, merkaturako aukerei eta eskuragarri dauden azpiegiturei dagokienez, batik bat abeltzaintza-industriaren sektorean, eskualdean balioa sortuko duen jarduera ekonomiko berria sortu ahal izateko.

BJPan jasotzen denez, helburu estrategikoak honako hauek dira, besteak beste:

- Eskualdean nekazaritzako elikagaien sektorearen ekintzailatza eta enpresa berrien sorrera sustatzea.
- Aiaraldeko lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria txikia berrikuntzaren bidez eraldatzea.

### ESPARRUA

2020ko azaroaren 3an, EAEko Gobernu Kontseiluak BERPIZTU programa onetsi zuen, 2020-2024rako EAEko suspertze ekonomikorako eta enplegurako programa, EAEn suspertze ekonomikorako eta enplegurako funtsezko erronkei erantzun integrala emateko. Kontseilu Araupetzaileak 2021eko martxoaren 10ean Gizarte-egoera ahulean dauden eskualdeak edo lehentasunez jarduteko eremuak (LJE) berrindartzeko Plan berezia abian jartzea onetsi zuen, eskualde horiek eraldatzeko eta EAEn suspertze-eta eraldatze-prozesuan atzean gera ez daitezen lortzeko behin betiko sustapena emateko. Gizarte-egoera ahulean dauden eskualdeak edo lehentasunez jarduteko eremuak (LJE) berrindartzeko Plan bereziak, helburu horiek betetzeko, trakzio-proiektu batzuk egitea aurreikusten du; proiektu horiek eskualde bakoitzeko eragile ekonomikoek eta sozialek eta erakundeek erabakigarritasunez esku hartu duten parte hartzeko eta elkarlaneko prozesu batean zehaztuta daude. Honako eremu hauetan izango da aplikagarria: Aiaraldea, Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterriak eta Oarsoaldea. 2021-2024 aldian gauzatuko diren inbertsio-jarduketara zehatzak sortuko ditu.

Testuinguru horretan, 2021eko azaroaren 25ean, Legebiltzarraren Ponentziaren txostena onetsi zen eta,



## **BJPAiaraldea 2022-2024 - TrakzioProiektua A2 DibertsifikazioEkonomikoa: NekazaritzakoElikagaienSektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

ondorioz, Aiaraldeko 2022-2024rako BJP dokumentua egin zen, 2022ko martxoaren 1ean onetsi zena. BJP hori Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako eta Bizkaiko foru-aldundien artean prestatu da, eta eskualdeko udalekin eta ekonomia-, gizarte- eta enpresa-eragileekin egiaztatu.

Aiaraldeko eskualdean Arabako Amurrio, Laudio, Aiara, Artziniega eta Okondo udalerrriak daude, eta Bizkaiko Arrankudiaga, Arakaldo, Orozko eta Urduña.

BJPren esparruan, suspertze ekonomikoa eta industria-dibertsifikazioa dokumentuaren oinarri diren bost ardatzetako bat da, eta, ardatz horren barruan, trakzio-proiektuetako bat honako hau da: A2 Dibertsifikazio Ekonomikoa: Nekazaritzako Elikagaien Sektorea. BJPk 8 trakzio-proiektu eta 33 jarduketa jasotzen ditu, ekimen hau, besteak beste.

Testuinguru horretan, Hazi Fundazioak berrikuntza irekiko prozesu bat jarri du abian eta, horretarako, proiektuen lehiaketa baten deialdia egin du; deialdi horren helburua da nekazaritzako elikagaien sektorearen eremuan berrikuntzako osagairen bat dakarten eta eskualdean garatuko diren enpresa-ekimenak sustatzea eta bultzatzea.

Ekimena Eusko Jaurlaritzak – Berpiztuk (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza) finantzatu du, eta **730.000 euroko** aurrekontu-zuzkidura izango du.

## **2.- GAIA**

Aurkeztuko den **Lehen Sektorearen eta Nekazaritzako Elikagaien Industria Txikiaren** proiektuen gaia honako hau izango da:

Inbertsioko eta/edo inbertsio horri lotutako gastuko proiektuak, elementu berritzailearen bat sartzen dutenak enpresa bat hasteko edo enpresaren lehiakortasuna hobetzeko. Gastuak proiektu teknikoak prestatzeari, obra-zuzendaritzari, eta abarri buruzkoak izango dira. Ez dira langile-gastuak barne hartzen.

## **3.- ONURADUNAK ETA AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN HAUTAGARRITASUN-BALDINTZAK**

### **ONURADUNAK**

Deialdi honen bidez nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa-proiektuak bultzatu nahi dira. Pertsona fisiko edo juridikoentzat irekita dago, baldin eta, lehen mailako ekoizpenarekin edo nekazaritzako elikagaien produktuak eraldatu eta merkaturatzearekin lotuta, ekimen berritzaileak badituzte. Enpresa horiek (berriak edo aurretiaz eratuak) prozesuak anizteko edo hobetzeko interesa izango dute. Sustatzaile bakoitzeko proiektu bana baino ez da onartuko.

Sustatzailea publikoa eta pribatua izan daiteke; enpresa izanez gero, mikroenpresa edo enpresa txikia izango da.



## **BJPAiaraldea 2022-2024 - TrakzioProiektua A2 DibertsifikazioEkonomikoa: NekazaritzakoElikagaienSektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

Enpresa izanez gero, mikroenpresa edo enpresa txikia izango da. «Enpresatzat» joko da jarduera ekonomikoan aritzen den edozein erakunde, izaera juridikoa eta finantzaketa-modua gorabehera.

ETE-en kategorian, **mikroenpresa** 10 pertsona baino gutxiago lanean dituen enpresa da; horrez gain, urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorrak ez ditu 2 milioi euro gainditzen.

ETE-en kategorian, **enpresa txikia** 50 pertsona baino gutxiago lanean dituen enpresa da; horrez gain, urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorrak ez ditu 10 milioi euro gainditzen.

### **PROIEKTUAREN HAUTAGARRITASUN-BALDINTZAK**

- Proiektuak osagai berritzaileen bat izan behar du (produktuari, prozesuari, antolamendu-mailari edo marketinari dagokionez).
- Proiektua edo proiektuaren fasea ez dago hasita.
- Proiektua Aiaraldean gauzatu behar da.
- Proiektuak jarduera ekonomiko bat bultzatu edo sortzen du.
- Proiektuak inbertsio bat ekarri behar du.
- Gauzatzeko epea: 2024ko abendua (luza daiteke).

### **4.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK ETA SARIAREN INTENTSITATEA NAHIZ ZENBATEKOA**

Proposamen guztiak adituen batzordeak balioetsiko ditu, eta proiektu irabazleak hautatzeko honako irizpide hauek kontuan hartuko ditu:

Puntuazioa ezartzeko, jarraian zehazten diren irizpideak baloratuko dira, aurkeztutako dokumentazio guztia kontuan hartuta.

#### **BALORAZIO-IRIZPIDEAK**

Irizpideak erantsi diren agirien arabera balioetsiko dira.

Irizpide bakoitzari puntu zehatzak emango zaizkio. Hala, eskaera orok guztizko puntuak izango ditu, irizpide bakoitzean eman diren puntuak batu ostean.

Gehienez 250 puntu lortu ahal izango dira.

**BJPAiaraldea 2022-2024 - TrakzioProiektua A2 DibertsifikazioEkonomikoa: NekazaritzakoElikagaienSektorea**

PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario

1. taula. Proiektuak balioesteko irizpideak

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
<b>Estrategikoa</b> (0-30)	<b>Lerrokatze estrategikoa:</b> “Baserritik mahaira” estrategiarekin lerrokatzea	Ekimena “Baserritik mahaira” estrategiaren helburuekin lerrokatzen da. <b>30 puntu.</b>
<b>Berrikuntza</b> (0-30)	<b>Osagai berritzailea:</b> Osagai berritzailearen deskribapena	Proiektuak osagai berritzaile bat du: <b>20 puntos</b>  Proiektuak osagai berritzaile bat du: <b>10 puntos</b>
<b>Egingarritasun teknikoa</b> (0-20)	<b>Talde sustatzailea:</b> Proiektuaren partaideak deskribatzea eta tartean diren pertsonek lanbide-esperientziari buruzko laburpena.  <b>Kronograma:</b> Ekintzak, funtsezko datak eta amaiera-data dituen plana. Proiektuaren zer fasetan dagoen adierazi behar da.  <b>Baliabideak:</b> Proiektua garatzea ziurtatzen duten erakundearen baliabideak	Proiektuak behar bezala inplementatzeko nahikoa <u>giza baliabide</u> ditu: <b>5 puntu.</b>  <u>Kronograma</u> edo faseak behar bezala definituta daude eta proiektuaren deskribapenarekin bat datoz: <b>5 puntu</b>  Proiektuak behar bezala inplementatzeko nahikoa <u>bitarteko</u> <u>teknikoak</u> ditu: <b>5 puntu</b>  Jardueren eta inplementatzeko baliabideen artean koherentzia ageri da: <b>5 puntu</b>
<b>Inpaktua</b> (0 - 30)	<b>Enplegua sortzea:</b> Enplegua sortzeko estrategiaren deskribapena.	Proiektuak enplegua sortzen du: <b>10 puntu.</b>  Proiektua interes orokorrekoa da eskualdearentzat: <b>20 puntu.</b>
<b>Aliantzak</b> (0 - 20)	<b>Aliantzak</b> Balizko aliantzen definizioa.	Proiektua zenbait eragilerekin elkarlanean garatzen da: <b>20 puntu.</b>
<b>Sustatzailea / Talde sustatzailea</b> (0 - 50)	<b>Prestakuntza eta esperientzia</b> Proiektuaren taldea osatzen duten kideen deskribapena, haien prestakuntza eta esperientziarekin batera.	Pertsona sustatzaileak prestakuntza du: <b>15 puntu.</b>  Pertsona sustatzaileak esperientzia du: <b>15 puntu.</b>  Gutxienez talde sustatzailearen erdia nagusiki nekazariak dira: <b>20 puntu.</b>



**BJPAiaraldea 2022-2024 - TrakzioProiektua A2 DibertsifikazioEkonomikoa: NekazaritzakoElikagaienSektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

	<b>Pertsona sustatzailea:</b> Pertsona sustatzailearen deskribapena.	
<b>Negoio Plana - Kudeaketa Plana</b>  (0 - 70)		Negoio-planean / Kudeaketa-planean aurkeztutako elementuak elkarri lotuta eta zehaztuta daude, eta haien artean badago kohesioa eta koherentzia: <b>70 puntu</b>

## SARIAREN INTENTSITATEA ETA ZENBATEKOA

Laguntza jasotzeko, gutxienez **125 puntu** lortu beharko dira, eta laguntza, gehienez, 100.000€-koa izango da.

**175 eta 250** puntu bitartean lortzen duten proiektuek aurkeztutako proiektuaren zenbateko osoaren % 60 jasoko dute.

**125 eta 174** puntu bitartean lortzen duten proiektuek aurkeztutako proiektuaren zenbateko osoaren % 50 jasoko dute.

Pertsona sustatzailea emakumea bada, sariaren zenbatekoa % 5 gehituko da. Pertsona gaztea bada (41 urte baino gutxiago), sariaren zenbatekoa % 5 gehituko da. Bi kasuistikan pertsona sustatzailea figura juridiko bat denean, kideen % 50ek, gutxienez, aipatu diren irizpideak bete beharko dituzte.

Funtsak agortzen ez badira, % 10 gehiago esleituko zaio aurretik proiektu bakoitzari esleitutako kopuruari eta lortutako puntuazioaren hurrenkerari jarraikiz, 100.000 €-ko hasierako gehieneko laguntza jaso duten proiektuak barne, harik eta dauden funtsak agortu arte.

## 5.- EBALUAZIO-BATZORDEA

Proposamenak diziplina anitzeko taldeak ebaluatuko ditu, eta honako kide hauek osatuko dute:

- HAZIk izendatutako pertsona bat
- Zabaiko Landa Garapenerako Elkartearen ordezkari bat
- Gorbeialdeko Landa Garapenerako Elkartearen ordezkari bat

Ebaluazio-batzordeak lehiaketa hutsik utzi ahalko du, baldin eta ez badu proposamenik egokitzat jotzen gutxienerako puntuetara ez delako iritsi.

Ebaluazio-batzordeak erabakiak gehiengo osoz hartuko ditu eta organo eskudunari (FUNDACIÓN HAZI – HAZI FUNDAZIOA) emateko edo ezesteko proposamen gisa iritsiko zaizkio.



**BJPAiaraldea 2022-2024 - TrakzioProiektua A2 DibertsifikazioEkonomikoa: NekazaritzakoElikagaienSektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

## **6.- IZEN-EMATEA ETA EPEAK**

HAZiren web-orrian ([www.hazi.eus](http://www.hazi.eus)) eskuragarri dago proposamenak aurkezteko behar den informazio guztia: lehiaketaren oinarriak eta proiektuetarako bete beharreko txantiloak. Eskaera-orria eta betetako memoria aiaraldea\_sector@hazi.eus helbide elektronikora bidali beharko dira; proposamen guztiak PDF dokumentuetan aurkeztu beharko dira.

**Lehiaketa 2023ko azaroaren 15etik abenduaren 15era bitartean egongo da zabalik, biak barne**

Erantsitako agiri guztiak behar bezala beteko dira.

Edozein zalantza honako helbide elektronikoa honetan argitu daiteke: [aiaraldea\\_sector@hazi.eus](mailto:aiaraldea_sector@hazi.eus)

Eskaera aurkeztuz gero, oinarri hauetan adierazten diren baldintzak eta betekizunak berariaz eta formalki onartzen dira.

Partaideek azaltzen dute oinarrietako baldintzak ezagutu eta onartzen dituztela; beraz, ezingo dituzte aurkaratu proposamenak aplikaziora igo eta datu pertsonalak inprimakian bidali direnean.

## **7.- LEHIAKETAREN EBAZPENA ETA ERREKURTSOEN ARAUBIDEA**

Emitzak HAZIren webgunean argitaratuko dira **2023ko abenduaren 19tik 2024ko otsailaren 29ra bitartean.**



**BJP Aiaraldea 2022-2024 - Trakzio Proiektua A2 Dibertsifikazio Ekonomikoa: Nekazaritzako Elikagaien Sektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

**8.- KONTRATU ERATORRIA**

Lehiaketa ebazten denean, proiektuak garatzeko kontratua sinatuko da. Aldi berean, sustatzaileak honako hauek egiaztatu beharko ditu:

- Nekazaritza Ogibide Nagusi (ATP) duen pertsonaren ziurtagiria
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen ziurtagiria (IFK) / (IFZ)

Alderdien arteko (onuraduna eta HAZI) ad hoc kontratuan, besteak beste, zuzkidura onartzearen eraginak bilduko dira:

1. Proiektua gauzatzeko esleipen ekonomikoa onartzea.
2. Proiektua aurkeztutako proposamenarekin bat inplementatzea.
1. Erakundeek zehaztutako epean proposamena egin izanaren ebidentzia eta proiektuari dagozkion gastuen justifikazioa aurkeztea.
3. Proposamena gauzaten ez bada, esleipen ekonomikoaren zenbatekoa itzultzea.
4. Esleitutako zenbatekoa oso-osorik erabili ez bada, erabili ez den zenbatekoa itzuli beharko da.

Proiektuetarako laguntza ekonomikoa emateko, kontratuaren enpresari esleitutako sariaren % 50eko abala edo kauzio-asegurua aurkeztu beharko da (gastu hori gastu finantzagari gisa aurkeztu ahalko da).

Kontratua sinatzen denean zuzkiduraren % 50 entregatuko da eta beste % 50a, proiektua amaitutakoan.

**9- BATERAEZINTASUNAK**

Ezingo dute proposamena aurkeztu, ezta adjudikaziodun izan ere, honako inguruabarren batean murgilduta dauden pertsonak edo erakundeek:

- a) Epai irmoaren bidez dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera ez izatearekin kondenatuak ala prebarikazio, eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitze, eragimen-trafiko, iruzur eta legez kanpo ordainaraztearen delituak edo hirigintza-delituak direla eta kondenatutakoak.
- b) Borondatezko konkurtsoaren aitortzea eskatu izana; edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo izana; konkurtsoan aitortzea, hitzarmena eraginkorra denean izan ezik; esku-hartze judizialaren mende egotea edo Konkurtsoen uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaitzea, konkurtsoaren kalifikazio-epaian finkatuta

**BJP Aiaraldea 2022-2024 - Trakzio Proiektua A2 Dibertsifikazio Ekonomikoa: Nekazaritzako Elikagaien Sektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

desgaitze-aldia amaitu gabe.

- c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu suntsiarazteko erabaki irmoa hartu izana, erruduntzat hartzeko ebazpena dela eta.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak Estatuko Administrazio Orokorreko Goi-kargudunen martxoaren 30eko 3/2015 Legeak, Administrazio Publikoen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak ezarritako kasuren batean egotea edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak arautzen duen edozein kargu hautesle izatea, legean bertan ala arlo horietako araudi autonomikoan xedatzen diren baldintzetan.
- e) Indarrean diren xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzakoak egunean ez izatea, arauz xedatutako moduan.
- f) Egoitza fiskala erregelamendu bidez paradisu fiskal gisa sailkatutako lurralde edo herrian izatea.
- g) Ebazpen irmoaren bidez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen edo hala zehazten duten beste lege batzuen arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzearekin zehatu izana.
- h) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11.3 artikuluko bigarren paragrafoan aurrez ikusitako elkarteak izatea, edozein kidek lehen aipatu den debekuren bat badu.
- i) Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluen 5. eta 6. ataletan aurreikusitako debeku arrazoiren baten baitan dauden elkarteak izatea.
- j) 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikulua ezartzen duena aplikatuz, ez-zilegitasun penalaren aztarna arrazionalak dituzten elkarteak izatea, elkartearen aldeko ebazpenik ez dagoen bitartean.
- k) Kontratatzeko debekuak izatea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera.

Halaber, enpresek ezingo dute lehiaketan parte hartu, zuzentzen duten pertsonak edo beste inguruabar batzuk kontuan hartuta, eraldatu, bat-egite edo oinordetzaren ondorioz ustez halako egoeraren batean dauden beste enpresa batzuen jarraipen bat edo haietatik eratorriak direla ondorioztatzen bada.

**BJP Aiaraldea 2022-2024 - Trakzio Proiektua A2 Dibertsifikazio Ekonomikoa: Nekazaritzako Elikagaien Sektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

**10.- BESTELAKOAK**

- Erakunde deitzaileak oinarri hauen aldaketa, interpretazio eta ondoreei buruz sortzen diren gaiak ebartziko ditu.
- Lehiaketa honetako partaideek, oro har, lehiaketa dela eta eskuratzen duten informazioaren konfidentziasuna errespetatuko dute.
- Oinarri hauek aplikatzean jasotzen diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikazioko gainerako araudian ezarritakoaren arabera tratatuko dira.
- Aurkeztutako lan guztien jabetza intelektualeko eskubideak haien egileei dagozkie. Hala ere, saritutako egileek deialdia egiten duen entitateari lagako dizkiote erakusteko, kopiatzeko eta argitaratzeko eskubideak, indarrean dagoen jabetza intelektualari buruzko legeriak dakarrenarekin bat etorritz, betiere haiek industria-sekretua ezinbesteko ez badute.

Idea/proiektuetatik sortzen diren babesteko moduko eskubideak kontratu eratorrian edo kontratu espezifikoetan negoziatuko dira, proiektu bakoitzaren izaera, ezaugarriak eta/edo beharrak kontuan hartuta.

**11.- DATU PERTSONALEN BABESA**

Prozesu honen ondorioz kudeatutako datu pertsonalak "Aiaraldeako nekazaritza, abeltzaintza, nekazaritzako elikagaien industria eta landa-ingurune sektorea dinamizatzeko jarduerak" izeneko tratamenduan sartuko dira. Haren arduraduna HAZI Fundazioa da (IFK: G-48986137; egoitza soziala: Arkauteko (Araba) Abeletxea zk.g., 01192).

Tratamenduaren helburua Aiaraldeako nekazaritza, abeltzaintza, nekazaritzako elikagaien industria eta landa-ingurune sektorea dinamizatzeko ideiak eta jarduerak azaltzeko lehiaketak kudeatzea da.

Datuen tratamendu honen oinarri legitimatzailea da Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikuluan babestutako jarduerak egiteko Hazi fundazioaren botere publikoak baliatzea da, zeinak haren estatutuetan oinarritzen baitira. Era berean, eta gaikuntza ematen duen lege-oinarri beraren babesean, Fundazioaren jardueraren zabalkunde-informazioa bidali ahalko da.

Datuak gaian eskumena duten kontroleko autonomia- eta toki-mailako erakunde eta agintaritzei laga ahalko zaizkie.

Datu pertsonalak lehiaketa garatu bitartean gordeko dira eta hura amaitu arte; ondoren, blokeatu egingo dira, aplikagarri den araudi bereziak ezartzen dituen preskripzio-aldiez, bai eta kudeaketa orokorraren eta, zehazki, datu pertsonalei buruzkoaren ondoriozko erantzukizunen eskakizunari buruzko preskripzio-aldiez ere.

Interesdunek beren datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea dute, eta zehatzak ez diren datu pertsonalak zuzentzeko eska dezakete edo, hala badagokio, haiek ezabatzeko, besteak beste, bildu zireneko helbururako beharrezkoak ez direnean. Era berean, emandako baimena atzera



**BJP Aiaraldea 2022-2024 - Trakzio Proiektua A2 Dibertsifikazio Ekonomikoa: Nekazaritzako Elikagaien Sektorea**

*PAI Aiaraldea 2022-2024 – Proyecto Tractor A2 Diversificación Económica: Sector Agroalimentario*

botatzeko eskubidea dute, bai eta haien datuen tratamendua mugatzeko ere; kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez dira gordeko.

Interesdunak eskubideak baliatzeko eskabidea aurretik aipatuta HAZI Fundazioaren posta-helbidera edo posta elektronikora bidali ahalko du; horretarako inprimaki bat dago eskuragarri erakundearen webgunean.

Interesdunak bere eskubideak baliatzeko mezu elektronikoa bat bidali ahalko du [lopd@hazi.eus](mailto:lopd@hazi.eus) helbidera. Halaber, erreklamazio bat aurkeztu diezaioke Datuak Babesteko Espainiako Agentziari, bereziki haren eskubideak baliatzeko prozesua gogobetegarria izan ez denean, [www.aepd.es](http://www.aepd.es) orrialdean ageri den posta-helbidean eta/edo elektronikoan. Erreklamazio bat aurkez diezaioke Datuak Babesteko Euskal Agentziari, bereziki haren eskubideak baliatzeko prozesua gogobetegarria izan ez denean, dagokion webgunean orrialdean ageri den posta-helbidean eta/edo elektronikoan.

Datuak konfidentziasunez tratatuko dira eta segurtasunerako neurri tekniko eta antolamendu-neurri egokiak hartuko dira, haiek baimenik gabe aldatu, galdu, tratatu edo atzitu ez daitezten. Ezarritako segurtasuneko eta antolamenduko neurriak eta neurri teknikoak Administrazio Elektronikoaren eremuan Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan aurreikusitakoekin bat datoz.